

REALA. Olabe, Denoueix, Zamora, Masach eta Manzisidor, lehen taldeko arduradunak

Kirol organigrama berria aurkeztu du, aldaketa sakonekin oinarritzko mailan

Zubillaga, Urbieta, Andoni Imaz, Iturrino eta Loren jokalaririk ohiak ariko dira lan horretan

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Atzo goizean aurkeztu zuen Realak taldeko kirol organigrama berria komunikabideen aurrean. Jose Luis Astiazaran presidentek eta Roberto Olabe kirol zuzendari gorenak eman zituzten azalpenak. Lehen taldeari dagokionez, ez zen aldaketarik egon orain aste batzuk jakinarazitako egitura eta izenak aintzat hartuta, baina oinarritzko mailan aldaketa sakonak egingo ditu zuzendaritzak, eta Realean aritu diren jokalaririk ohi asko arduratuko dira aurrerantzean kategorian horiek gidatzeaz.

Lehen taldeari dagokionez, Roberto Olabe gasteiztarra izango da Realeko kirol arduradun gorenak. Raynald Denoueixek beteko du entrenatzaile jarduna, eta alboan edukiko du Jesus Mari Zamora, bigarren entrenatzailea. Julen Masach izanen da prestatzaile fisikoa eta Xabier Manzisidor atezainen trebatzailea.

Oinarritzko futboleko, aldiz, aldaketa nabarmenak egongo dira kirol egituraren. Kudeaketa batzorde batek gidatuko du alor hori. Olabe bera izango da burua, eta bere aginduetara Realean urteetan aritutako hainbat jokalaririk izango ditu: Javier Zubillaga (alor teknikoko arduraduna), Manu Urbieta eta Andoni Imaz (kanpo harremanak beste taldeekin) Loren (Sanse-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Roberto Olabe Realeko Kirol zuzendaria atzo, Anoetako Estadioan emandako prentsurrekoan.

ko bigarren entrenatzailea) eta Iturrino. Horiekin batera, besteak beste, Mikel Etxarri, Julen Masach eta Gonzalo Arconada ariko dira.

Izendapen berriok Realean urte askotan lanean aritu diren zenbaiten agurra eragin dute, Inaxio Kortabarria, Karmelo Amas edo Iñaki Sarriegirena, kasu. Lagun hauek euren kargu-gabetzeaz kexu agertu dira azken egunetan, baina Jose Luis

Astiazaran presidentek hartu diren erabakiak zuzenak direla iritziz: «Realaren onura bilatu dugu», esan zuen erabaki horien azalpena eskatzean.

Olabe: «Etengabeko hezkuntza sustatu nahi dugu»

Talde txuri-urdineko kirol arduradun gorenak, Roberto Olabe, organigrama berriaren xedea «etenik gabeko hezkuntza sustatzea da», esan zuen. «Ho-

rrela lortuko dugu iazko sasoiaren gertatutakoa berriro ez erreplikatzeko, etxeko edozein langilek har dezakeela lehen taldea zuzentzeko ardura, alegia».

Jose Luis Astiazaran presidentea ere ildo beretik mintzatu zen, egin diren eraldakuntzek hobekuntza bilatzen dutela ziurtatuta: «Ez gara behe-behetik hasi, lanean ariko diren kualifikazio hobea bilatu nahi dugu».

ATHLETIC. Fabio Capelloren Erroma taldea izango da aurkari gogorrena, heldu den abuztuaren 18an

Denboraldi-aurreko zazpi norgehiagoka zehaztu ditu jadanik talde zuri-gorriak

Erredakzioa | **BILBO**

Denboraldi-aurreko zazpi partidak zehaztu ditu jadanik Athletic-ek. Horietatik bost heldu den abuztuaren 1etik aurrera talde zuri-gorriak Ingalaterran egin beharreko birakoak dira. Beste biak, aldiz, biratik itzulita Erroma eta Santanderko Racingen aurka jokatu beharrekoak dira.

Blackpool Ingalaterrako Hirugarren Mailako taldea izango da Athleticen aurreneko aurkaria, abuztuaren 2an, arratsaldeko 19:45ean. Bi egun geroago, Bigarren Mailako Leicester Cityren aurka neurtuko

dituzte indarrak Jupp Heynckes-ekin, arratsaldeko 15:00etatik aurrera. Abuztuaren 6an, aldiz, Bigarren Mailako Huddersfield Town taldea izango da talde zuri-gorriaren kontrarioa, arratsaldeko 19:45ean. Laugarren aurkaria Chester talde afizionatua izango da, abuztuaren 8an, arratsaldeko 19:30ean. Azkenik, eta bira amaitzeko, Everton Ingalaterrako Lehen Mailako taldearen aurka jokatu du Athletic-ek, abuztuaren 10ean, arratsaldeko 15:00etan.

Ingalaterrako bira amaituta talde zuri-gorria Euskal Herrira

itzuliko da, Lezamako instalazioetan heldu den denboraldia prestatzeko eta adiskidantza zko zenbait partida jokatzeko. Hala, abuztuaren 18an, denboraldi-aurreko norgehiagoka garrantzitsua jokatu dute, Erromaren aurka, Bazkidearen Omenezko norgehiagokan. Bukatzeko, talde zuri-gorriak ere Santanderko Racingen aurka jokatu du, Sardineroako Estadioan, abuztuaren 21ean, gaueko 21:00etan.

Exposito, Asensio eta Jaio utzita jokatu dute

Horrez gain, Athletic-ek atzo ja-

kinarazi zuen Egoitz Jaio, David Asensio eta Unai Exposito talde zuri-gorriko jokalaririk gazteek datorren denboraldian utzita jokatuko dutela. Unai Exposito atzelariak Txomin Nagore eta Jorge Perez Athletic-eko jokalaririk ohiak aurretik egindako bideari jarraitu eta Espainiako Bigarren Mailako Numantzia taldean jokatuko du. Egoitz Jaio atzelariak, berriaz, maila bereko Ferrolgo Racingen jokatuko du. Azkenik, David Asensio aurrelaria Bigarren B Mailako Alicante taldean ariko da. Asensio bigarren urtez jarraitzen ariko da talde zuri-gorriak utzita, aurreko denboraldian Extremadura taldean jokatutako baitzuen. Utzita jokatuta hiru jokalaririk gazte horiek partidak jokatu eta eskarmentua har dezatela nahi du Athletic-ek.

SEGA

Euskal Herriko Txapelketan 16 segalari ariko dira, 4 multzotan banatuta

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Aurten ere kanporaketen bidez jokatuko da Euskal Herriko txapelketa, guztira hamasei segalari ariko baitira lehen. Lehenik lau kanporaketa jokatuko dituzte, lau segalariko lau multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko lehen biek (8 segalari) finalerdirako txartela eskuratuko dute.

Lehen kanporaketa larunbatean jokatuko dute D multzokoek, Artziniegan (Araba). Lehen, Gondra eta Igor Astondoa Bizkaikoak, Albizua Arabakoa eta Rezabal Gipuzkoakoa ariko dira.

Uztailaren 7an bi kanporaketa jokatuko dira. C multzokoek Larraitzen (Gipuzkoa) jardungo dute lehen; hots, Aranalde, Etxetxo eta Bengoetxea II.a gipuzkoarrek eta Goioaga bizkaitarrak. A multzokoak Azkaraten (Nafarroa) ariko dira; hots, Ormaetxea, Ugarte eta Navarro gipuzkoarrek eta Guaresti arabarrak.

Laugarren kanporaketa uztailaren 13an jokatuko dute Laukizen (Bizkaia). Goikoetxea eta Garaiar gipuzkoarrek, Lapazararen bizkaitarra eta Mariñelarena nafarra lehiatuko dira.

HERRI KIROLAK

Bereau-Telletxea, Larretxea, Sein, Berriozar eta Etxegarai dira lider Nafarroan

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Nafarroako Iparraldeko Jokoen Torneoak 2. jardunaldia jokatuta, ez dago aldaketarik sailkapenean. Hala, zozkor-biltzen Fernando Etxegarai da lider 12 segundo eta 41 ehunenekorekin, ingude-altxatzen Sein 118 altxaldirerkin, harri-jasotzen Patxi Larretxea 8.400 kilorekin, lasto-altxatzen Bereau-Telletxea 43 jasoaldiarekin, zaku lasterketan Berriozar taldea 3 minutu eta segundo batekin eta txingeroaren Patxi Larretxea 29 plazarekin.